

PROMOZIOAREN OINARRIAK

GO! TXARTELEN ALTA

ZOZKETA: iPhone 17 Black, 256 GB
2026KO EKAINA

1.- Erakunde antolatzailea eta promozioa

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, F75076935 zenbakidun IFK eta helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua zk.g., 20500— duenak, 256 GB-ko bi iPhone 17 Black zozkatuko ditu, nazio-mailako PROMOZIO baten barruan.

2.- Promozioaren esparrua eta doakotasuna

Promozio hau 1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoa arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da, eta doakoa eta borondatezkoa izango da. Hortaz, saria eskuratu ahal izateko, ez da kuota edo kopuru gehigarririk ordaindu beharko.

3.- Promozioaren helburua eta prozedura

Zozketa bat (1) egingo da, eta honako hauek izango dira sariak:

- 256 GB-ko bi iPhone 17 Black —saridun bakoitzeko bat—. Saria ausazko sistema informatiko baten bidez zozkatuko da, ezarritako epean baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean. Zozketa 2026ko ekainaren 15ean egingo da.

Saria eskuratzeko, baldintza hauek bete behar dituzte bezeroek:

- 2026ko apirilaren 15etik maiatzaren 31ra bitartean (biak barne) kreditu- eta/edo zordunketa-txartel bat (Kredituko GO! eta Zordunketako GO!) kontratatzea. Zozketa 2026ko ekainaren 15ean egingo da.
- Irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izatekotan, egunean eta positiboan izan beharko ditu entitatearekin kontraturiko produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Behin soilik har daiteke parte pertsona fisiko gisa.

Promozioan parte hartzeak berekin dakar partekatutako edukien gaineko jabetza intelektuala eta irudi-eskubideak lagatzea. Hori horrela, bidalitako partaidetzaren ondorioz dagozkion ustiapen-eskubide intelektualak, industrialak edo irudikoak laga behar dizkio parte-hartzaileak LABORAL Kutxari.

4.- Iraupena eta eremua

Jarduera hau Espainiako lurraldean gauzatuko da. Promozioan parte hartzeko epea 2026ko maiatzaren 31n amaituko da. Zozketa 2026ko ekainaren 15ean egingo da.

5.- Parte-hartzaileak

Honako hauek hartu ahal izango dute parte promozioan:

- 2026ko apirilaren 15etik maiatzaren 31ra bitartean kreditu- eta/edo zordunketa-txartel bat (Kredituko GO! eta Zordunketako GO!) kontratatzen duten pertsonak.

Ezin izango dute promozioan parte hartu:

- LABORAL Kutxako langileak, ezta taldeko, partaidetzapeko eta antzeko sozietateetako langileak eta kanpainarekin zuzeneko lotura duten pertsonak ere.

Egoera hauetako batean dauden LABORAL Kutxaren bezeroek ez dute parte hartzeko edo saria irabazteko eskubiderik izango:

- LABORAL Kutxaren aurrean berankortasun-egoeran edo beste edozein egoera irregularretan daudenek, zozketa indarrean dagoen bitartean, zozketa egiten den egunean edo saria emateko unean.
- LABORAL Kutxaren iritziz iruzurrez jokatzeko duten zozketan.

PROMOZIOAREN OINARRIAK

GO! TXARTELEN ALTA

ZOZKETA: iPhone 17 Black, 256 GB

2026KO EKAINA

6.- Irabazleak eta ordezkoeak aukeratzea eta saria jakinaraztea eta ematea

3. atalean zehaztutako sariaren zozketa 2026ko ekainaren 15ean egingo da, ausazko sistema informatiko baten bidez. Bidezko arrazoiren batengatik egun horretan ezin bada zozketa egin, hurrengo egun baliodunean egingo da.

Saria onartzen duen ala ez jakinarazi beharko dio saridunak LABORAL Kutxari, telefonoz, posta elektronikoz edo bulego batean sinatutako hartu-agiriaren bidez, saria argitaratzen edo jakinarazten den datatik gehienez egun natural bateko (1) epean.

Parte-hartzaileak sariari uko egiten badio, edo berarekin harremanetan jartzerik ez badago, ez du inolako ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Saridunak sariari uko egiten badio, berarekin harremanetan jartzerik ez badago edo lehenago azaldutako onespina ematen ez badu, saria ordezkoeen zerrendako lehen postuan dagoen pertsonari esleituko zaio, zozketan parte hartzeko ordena errespetatuz. Saridunak ezingo du sari horren ordezkoe bat eskatu.

Sariduna saria jaso aurretik hiltzen bada, helburu horrekin berariaz aukeratutako ordezkoeari emango zaio.

7.- Sariaren zerga-sistema

Zozketa honetako sariak zerga-tratamendu hau izango du: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 35/2006 Legean, 439/2007 Errege Dekretuan eta kasuan kasuko PFEZren inguruko zerga-araudian aurreikusitakoa. LABORAL Kutxak ordainduko du sariari aplikatuko zaion zerga-atxikipearen zenbatekoa.

Era berean, LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu Zerga Administrazioaren aurrean dagozkion informazio-betebeharrak.

8.- Iruzkinek edo iritziek argitaratzea

Ez da onartuko iruzkin edo iritzirik, horien edukia desagokitzat jotzen bada, iraingarriak, laidogarriak edo diskriminatzaileak badira, edo hirugarrenen eskubideak urra baditzaizkete. Era berean, ez da onartuko inoren aurkako iruzkinik, baldin eta ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea urratzen badu. LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, parte-hartzaileek zozketan egiten dituzten iruzkinen beste parte-hartzaile batzuen sentzibilitatea mintzearen ondoriozko kalteengatik.

9.- Erreserbak eta mugak

Iruzurra egin dela ulertuko da, besteak beste, kasu hauetan: webgunearekin zerikusirik ez duten aplikazioen balizko erabilera detektatzen bada, zerbitzariari gehiegizko kontsulta-kopurua egiten bazaio eta itxuraz gehiegizkoak edo asmo txarrekoak diren portaerak antzematen badira.

Promozioan zehar halako egoeraren bat egiaztatzen bada, parte-hartzailea promoziotik kanpo geratuko da zuzenean, eta, saria eman bazaio, galdu egingo du.

LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, saridunek emandako datuetan akatsen bat badago eta horrek haien identifikazioa galarazten badu.

LABORAL Kutxak ez du inolako erantzukizunik izango, saria ematean edo erabiltzean gertatzen diren gorabeheren ondorioz, ezta berari ez dagozkion arrazoiengatik parte-hartzaileak saria jasotzean gertatzen diren atzerapen edo hutsegiteen ondorioz ere.

Pertsonaren batek promozioaren manipulaziotzat edo faltsifikaziotzat har litekeen edozein egintza egiten badu, LABORAL Kutxak eskubidea izango du haren aurka ekintza judizialak abiarazteko.

LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, promozioan parte hartzeko erabiltzen diren zerbitzuak aldi batean erabiltzerik ez egotearen edo haien funtzionamendua eten izanaren, erabiltzaileek horiek iruzurrez erabiltzearen eta, bereziki baina ez eskusiboki, Internet bidez orrialdeetan sartzean eta parte hartzeko erantzunak bidaltzean izandako akatsen ondorioz gertatzen diren kalte-galerengatik.

PROMOZIOAREN OINARRIAK

GO! TXARTELEN ALTA

ZOZKETA: iPhone 17 Black, 256 GB

2026KO EKAINA

LABORAL Kutxak eskubidea izango du promozioaren xede onerako aldagetak egiteko, horretarako bidezko arrazoiak daudenean edo oinarri hauetan jasotzen den moduan burutzea galarazten duten ezinbesteko arrazoiak daudenean.

LABORAL Kutxak eskubidea izango du promozioaren iraunaldia luzatzeko edo geroratzeko, baita oinarri hauek interpretatzeko ere.

Halaber, enpresa antolatzaileak ez du inolako erantzukizunik bere gain hartuko, aipatutako kasuetako bat gertatzen bada edo saria baliatzean kalte-galeraren bat suertatzen bada.

10.- Datuen babesa

Datuen tratamenduz LABORAL Kutxa arduratuko da (IFZ: F-75076935; egoitza soziala: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua zk.g., 20500 Arrasate, Gipuzkoa).

Parte-hartzaileak lege-oinarri hauek onartzen baditu, ulertuko da badakiela LABORAL Kutxak tratatu egingo dituela promozio honetan parte hartzeko emandako datu pertsonalak, batetik parte-hartzea tramitzeko, bestetik irabazlea izanez gero sariaren berri emateko eta, azkenik, saridunaren izena eta/edo irudia argitaratu, erreproduzitu eta hedatzeko, LABORAL Kutxak egoki deritzen bitarteko, euskarri eta formatuen bidez (besteak beste, prentsaren, irratia, telebistaren, Interneten eta abarren bidez), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB Erregelamenduan eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera. Jarduera horiek ez dute ordainik edo onurarik jasotzeko inolako eskubiderik emango.

Datuak ikusteko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak eta, era berean, datuen tratamendua mugatzeko eta beste leku batera eramateko eskubideak erabili ahal izango ditu parte-hartzaileak. Horretarako, bere nortasuna egiaztatuz (NANaren edo horren pareko agiri baten bidez) protecciondatos@laboralkutxa.com helbide elektronikora idatzi beharko du, edo, bestela, ohiko postaren bidez, helbide honetara jo: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO, Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua zk.g., 20500 Arrasate, Gipuzkoa.

Bezeroen Datu Pertsonalak Babesteko Politika osoa hemen irakur daiteke:

<https://www.laboralkutxa.com/eu/datuen-babesa>.

11.- Oinarriak onartzea

Promozioan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea. Beraz, parte-hartzaileak adierazten badu oinarri hauek guztiak edo batzuk ez dituela onartzen, kanpo geratuko da. Ondorioz, LABORAL Kutxak ez du parte-hartzaile horrekin hartutako obligazioa bete beharko. Oinarri hauek www.laboralkutxa.eus webgunean kontsulta daitezke.

12.- Legeria aplikagarria eta jurisdikzioa

Lege-oinarri hauek Espainiako legearen arabera arautuko dira. Bergarako epaitegi eta auzitegiek izango dute eskumena oinarri hauen baliozkotasunaren, interpretazioaren edo betetzearen inguruan sortzen diren erreklamazioak edo desadostasunak ebazteko.